

Miren Azkarate, Kultura sailburua

## “Euskarazko eguneroko prentsa kalean egon dadin ziurtatzeko konpromisoa hartua dugu”



*Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako ekintzek euskararen eta kulturaren mundua gogor astindu dute. Euskarazko eguneroko bakarraren itxierak haserre handia piztu du gizartean baina, orain, "lan egiteko garaia da, elkarrekin lan egiteko garaia", Kultura sailburu Miren Azkaratek *Berripapera*-ri adierazi dienez.

**Berripapera:** Otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten, euskarazko eguneroko bakarra...

**Miren Azkarate:** Bai, baina Eusko Jaurlaritzak adierazia du bere konpromisoa eguneroko euskal prentsa kalean egon dadin ziurtatzeko. *Euskaldunon Egunkaria*, euskaldunok dugun eguneroko prentsa bakarra itxi izanak, errotik astindu ditu euskaldunon sentimenduak. Euskararen Aholku Batzordeak ere *Euskaldunon Egunkaria* berehala irekitzea eskatu zuen eta euskaldunok euskarazko eguneroko prentsa izateko eskubidea aldarrikatu.

**B.:** Epailak egunkaria itxeko agindu zuen, hamar eguneko lehen, sei hilabeteko gero. Proiektu berria gauzatu beharra dago...

**M.A.:** Esango nuke harrezkero oihu argia eta indartsua egin duela gizarteak indarrak elkartzeko, eta guztiok batera jokatzeko. Eta "guztiok" hori azpimarratu nahi dut: gizarte-eragileek, alderdi politikoez, herri-agintek eta hiritarrek, guztiok asmatu beharko baitugu indarberiturik sortu beharko lukeen proiektu berria definitzeko garaian.

**B.:** Eta nola egin?

**M.A.:** Pedro Migel Etxenik zioen bezala, zuhur jokatzeko garaia da. Diskurtso hutsak gaingitu eta erakitzeko garaia da. Eraikuntza horretarako bide bat baino gehiago egon daitezke; elkar gaitetzen eta azter dezagun guztion artean zein leku eta eginkizun izan dezakeen Jaurlaritzak proiektu berri hori definitzeko orduan, eta nolako inplikazioa beharko genukeen diru-

-baliabideak ipintzerakoan eta proiektu berria kudeatzerakoan. Eta, beti ere, egunkariaren independentzia bermatuz.

**B.:** Nola ikusi duzue epailearen jokabidea?

**M.A.:** Epailak *Euskaldunon Egunkaria*-ren etorkizunaz zer erabakiko zain egoterik ez dago. Eusko Jaurlaritzak hasieratik adierazi du bere konpromisoa euskal prentsa kalean egon dadin ziurtatzeko, otsailaren 27ko bilkuran Euskararen Aholku Batzordeak eskatu zigunez. Jakinarazi nahiko nuke proiektu berriari inplikazio sakonagoa izateko prest gaudela. Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu euskal hiztunak ez garela horrenbeste eta nahikoa lan izaten dugula egunkari bat, telebista bat, eta beste hamaika bat aurrera ateratzen eta sendotzen. Baina Ibarretxe lehendakariak berak esan zuen: "gizarte honek beti erakutsi du kemena euskararen normalizazioaren etengabe aurrera egiteko, eta orain ere uste osoa dugu bidea aurkituko duela".

1

Miren Azkarate, Kultura sailburuari elkarrizketa

2

PERTSONAJEA: Maite Barnetxe

LABURRAK

*Expolingua*, Madrilen

*Euzko-Gogoa* Interneten

Imanol Azkue, Lizardi sariaren irabazle

3

Ikastolen eta euskal eskolen festak

Hizkuntza Politika gogoetagai

*Euskonews & Media*-n

4

EBPN udaletan: tokian tokiko Euskararen Aholku Batzordeen ekarpenak jasotzen



## Ikastolen eta euskal eskolen festak

### Ikastolen eta euskal eskola publikoaren egunen garaia dator

Urtero ohi denez, Herri Urrats festak irekiko du ikastolen eta euskal aldeko eskolen festen egutegia. Maiatzaren 11n egingo da Iparraldeko ikastolen festa Senpereko lakuaren inguruan. Aurtengo etekinak Ziburuko eta Donaixtiko ikastolak konpontzeko erabiliko dira. Festaren hogeigarren aldia izango da eta, urtemugaren karietara, oroitarria ezarriko dute Senpereko zingiran.

Herri Urrats-en ondotik, maiatzaren 18an Ibilaldia egingo da, Lekeition aurtentz; "Dzanga geugaz" izango du lema.

Ekainean, hiru jai ere izango dira. Batetik, ekainaren 1ean, Euskal Eskola Publikoaren Jaia izango da Lasarte-Orian, hipodromoan, "Mugak gaindituz aurrera goaz" lemapean. Bestetik, bi festa izango dira hantatik zortzi egunera, hau da, ekainaren 8an: Araba Euskaraz, Oionen, "Oro bil, borobil" izenpean, eta Nafarroako Eskola Publikoaren Jaia Iruñean (Takoneran).

Uda ondoren, Gipuzkoako ikastolen festa izango da Lazkaon urriaren 5ean "Euskaraz bizi nahi dut" lemapean, eta Nafarroa Oinez, berriz, urriaren 19an, Irunberrin, "Harriz herri, Irunberri" dioen lema azpian.



## Hizkuntza Politika gogoetagai *Euskonews & Media*-n

### Gaiaren inguruan jardun dute hainbat adituk eta espezialistak

Euskararen inguruan garatzen ari den hizkuntza politikari buruzko gogoeta egin du Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media* aldizkari elektronikoaren 201. zenbakiak. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Goenagari eskaini diote ohiko elkarrizketaren atala. Horrekin batera, hainbat adituk gaiari buruzko gogoeta egiten dute: euskararen lege-garapenez ari da Andres Urrutia; euskalduntzearen eta alfabetatzearen erronkez Jokin Azkue; euskararen normalizazioaz lan munduan Joxe Ramon Elortza; euskarak behar dituen lur berriez Kike Amonarriz; Nafarroko euskararen egoerari buruz Aingeru Epaltza; eskola eleanitzaz Erramun Osa; eta, azkenik, euskararen bilakaera soziolinguistikoaz Miren Mateo eta Xabier Aizpurua.



# EBPN garatzen ari diren udaletako Euskararen Aholku Batzordeen ekarpenak jasotzen



Herriko plan estrategikoaren proposamenak lantzen eta jarraitzen ari dira



EBPN egiten ari diren udalek plan estrategikoaren proposamena udal mailako Euskararen Aholku Batzordeen esku jartzea erabaki dute, tokian-tokian hizkuntza-normalkuntzan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren andre-gizonen ikuspuntua ezagutu eta kontuan izateko aurrera baino lehen.

Euskararen Aholku Batzordea organo aholku-emaile dute, beraz. EABren lehendabiziko lana, udalek landutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren plan estrategikoaren proposamenari buruz ekarpenak egitea izan-

go da, eta bigarrena, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren urteko kudeaketa-planaren jarraipena egitea.

Udalerrri bakoitzaren plan estrategikoan jasotako esparruetako kideek osatzen dute EAB: administrazio-ko esparruko ez gain, irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatze, enpresa-komertzio, astialdi-kirol, erlijio, komunikabide eta beste zenbaitetakoek.

Gainera, EABren jarduna eraginkorra izan dadin, hainbat udalerritan lantaldeak eratu dira, lantaldeetarik bakoitza Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu estrategiko bati lotuta, hots:

- Euskararen geroratzeari loturik, euskalduntze-alfabetatze, irakaskuntza eta familia bidezko transmisioaren esparruetako ordezkari, aditu eta pertsona esanguratsuak.
- Euskararen erabilerari loturik, administrazio, enpresa-merkataritz, teknologia berri, aisialdi-kirola eta erlijioaren esparruetakoak.

- Euskararen kalitateari loturik, kulturagintza eta komunikabideetakoak.

EBPN egiten ari diren udaletako arduradunek oso interesgarri jo dute tokiko Euskararen Aholku Batzordeak eratzea, batetik, EABetako kideen ekarpenek udalen ekimena osatzeko balioko dutelako, bai plan estrategikoa zehazterakoan eta bai urtez urteko garapenean ere, eta bestetik, eurentzat herritar eragile horien hasierako ikuspuntua eta iritzia bezain garrantzitsua delako egin asmo duten guztia elkarlanean burutzea.

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak: .....  
 .....  
 Helbidea: .....  
 .....  
 Herria: .....  
 kodea: .....Lurraldea: .....  
 Tel.: .....  
 e-posta: .....